

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

352/2026 Foru Agindua, uztailaren 17koa. Igor Sánchez Idoetaren bitarteko izendapena, Aramaio Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bete dezan, lanpostu horren titularra aldi batez ez delako egongo

Aramaioko Udalak, 2026ko uztailaren 10ean, Igor Sánchez Idoetaren bitarteko izendapena eskatu du udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako, 2026ko uztailaren 13ko ondorioekin, lanpostu horren titularra aldi batez ez delako egongo.

Espedientean jasota dago 2026ko ekainaren 22ko ALHAOn (71. zk.) argitaratu zela estaturako gaikuntza duten funtzionarioei eskaini zaiela lanpostua, baina ez dela eskaerarik jaso.

Legutioko Udaleko lan poltsara jo da, irekita egon delako beste toki erakunde batzuek erabil dezaten, baina lan poltsa osatzen duen inork ez du onartu.

Lanpostua ezin izan denez aurreko bitartekoen bidez bete, eta Baños de Ebro / Mañueta, Samaniego eta Villabuena de Álava / Eskuernagako udalen elkarteak indarrean dagoen lan poltsa bat duenez, zeina izapidetu baita berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate eta bizkortasun printzipioak beteta, idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetze aldera, udalen elkarte horrek lankidetza hitzarmen bat formalizatu zen Aramaio Udalarekin, idazkari-kontuhartzaileen lan poltsa lagatzeko. Hitzarmen horretan berariaz aipatu da lan poltsako kideek aldeztu aurretik baimena eman dutela Aramaio Udalari datuak lagatzeko, eta datuak babesteko araudia bete behar dela.

Azkenik, zerrendako ordenari zorrotz jarraituz lan poltsako kideei deitu ondoren, orain proposatzen den izendapena dela-eta, Igor Sánchez Idoeta izan da lanpostua betetzeko prestasuna adierazi duen lehena (Baños de Ebro / Mañueta, Samaniego eta Villabuena de Álava / Eskuernagako udalen elkartearen lan poltsan dago), eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ditu.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena.

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Igor Sánchez Idoeta izendatzea Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa bete dezan, 2026ko uztailaren 13ko ondorioekin, harik eta haren titularraren lanpostura itzultzen den arte.

Bigarrena. Aramaioko Udalak sail honi jakinaraziko dio funtzionario hori noiz itzuliko den lanpostura.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Aramaioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu zuzenean administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 17a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA